

UDAL-BATZARRA 8/05

UDAL-BATZARRAK, 2005eko uztailaren 29an EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Jose Ignacio Otermin Garmendia

ZINEGOTZIAK:

M^a Carmen Egurza Salaberria

Nieves Alarcos Martinez

Jesus M^a Arsuaga Lizaso

Mikel Zubillaga Galarraga

IDAZKARIA:

Nekane AGIRRESAROBÉ ETXEBERRIA

ANOETAko Udaletxean, 2005ko uztailaren 29an goizeko zortzirik direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko Bilkura egin asmoz Jose Ignacio Otermin Garmendia alkate funtzioko jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik, Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak oporrak direla eta ezin izan du bertan izan; Kepa de la Iglesia eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

1.- Anoetako A14, A20, S1 ETA R1 AREEI BURUZKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA ETA ZUZENKETA.

Pilar Amenabar Zabala arkitektu anderean eginiko Anoetako A14, A20, S1 eta R1 arrei buruzko planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa eta zuzenketaren aurrerapena ikusi ondoren.

Visto el Avance de Modificación y subsanación de las NNSS de Planeamiento de Anoeta, referidas a las Areas A14,A20,S1 y R1; redactado en mayo de 2005 por la arquitecto Dña. Pilar Amenabar Zabala.

Jose Ignacio Otermin Garmendia alkate funtziotakoa bertaratutakoei ondorengoa adierazten die:

El Sr. Alcalde en funciones D. Jose Ignacio Otermin Garmendia manifiesta a los presentes:

“Gai bakarra da, Lasarbe gune berri horretan martxan jartzeko tramiteak eta bakar bakarrik da momentu honetan onartzea esku artean daukagun proposamen berri hau eta informazio publikora ateratzea. Gure asmoa da, batzordean komentatu genuen bezala, bi hilabeteko epean “exposición

publica” hori martxan jarri eta gero ikustea ze proposamen berri etortzen diren eta hauek denon artean tratatzea, gure artean eta interesatuen artean aurrera atera ahal izateko proiektu berri hau”.

2005eko uztailaren 12an Hirigintza eta Ingurugiroko Batzorde Informatzaileak emaniko diktamina ikusirik.

Hau dela eta, Planeamendu Araudiko 125. artikulua xedatutakoaren arabera, partaideek aho batez ERABAKITZEN DUTE bi hilabetez jendaurreko informazioan jartzea, epe honetan, iradokizunak, edo kasua balitz, planeamenduko beste alternatiba batzu aurkezteko.

Gero, bertaratutako batek hitza eskatzen du ondorengo adierazteko:

“Hitza hartu nahi nuke eta lehenengo aklatatu nahi nuke heman den tramitea, ez banago gaizki ulertuta aurrena plenotik pasako da, gero boletinean argitaratu, bi hilabeteko epea emango zaie erreklamazioak egiteko”.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Erreklamazio eta idea berriak. Erreklamazioak bakarrik ez, hau da aurreproiektua, ez da ezer onartzen.

Bertaratutakoak dio:

“Erreklamazio horiei erantzuna emango zaie eta honen ondoren diputaziotik pasako litzateke. Hau da tramitea?”

Idazkariak hartzen du hitza eta esplikatzen du:

“Lehendabizi jendaurreko epea irekitzen da dagozkion iradokizunak aurkezteko edo kasua balitz planeamenduko beste aukera batzuk. Epe hau amaitu ondoren eta aurkezturiko aukerak aztertu ondoren, plenoak behin-behineko onspena emango dio, berriro jendaurrean jarriko litzateke boletín ofiziala eta egunkarietan iragarkia argitaratuz dagozkion erreklamazioetarako. Erreklamazioak baleude plenoak onartu edo baztertu beharko ditu eta ondoren espedientearen hasierako onspena egingo litzateke, hau ere pleno bidez. Ondoren harturiko erabaki guztiak eta espediente osoa Diputaziora bidaliko litzateke planeamenduari behin betiko onspena eman ahal izateko”.

Bertaratutakoak dio:

“Bigarren bezala galdetu nahi nuke espedientearen, gestioari buruz kooperazio sistema aipatzen da, eta hor ez daukat oso argi urbanizazioa nola joango den”.

Visto el dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo y Medio Ambiente de fecha 12 de julio de 2005.

Ante ello, y de conformidad con lo dispuesto en el art. 125 de Reglamento de Planeamiento; se ACUERDA por unanimidad de los reunidos abrir un periodo de información pública por un plazo de dos meses, durante el cual se podrán presentar sugerencias, y en su caso, otras alternativas del planeamiento.

A continuación uno de los asistentes a la sesión solicita la palabra para intervenir en la misma:

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Egia esan dakitela bi sistema daude orokorrean, bueno hirugarren bat badago expropiazioa, printzipioz baztertu duguna eta beste bi sistema horiek dira konpentsazioa eta kooperazioa. Konpentsazio sisteman martxa edo bultzatzea jabeen esku geratzen da; beraiek egin behar dute “Junta de Compensación” bat, beraien artean adostu gauzak eta aurrera atera. Kooperazio sisteman berriz udalak dauka aukera berak bultzatzeko, nahiz eta jabeen artean ez adostu gauza batzuk udalal izango du aukera hori bultzatzeko, aukera gehiago du beste sisteman baino. Hori da orokorrean, zehatz-mehatz eskatzen badidazu ez dakit, baina printzipioz hori da diferentzi handiena”.

Bertaratutakoak dio:

“Gertatzen dena da, udala lur-jabea dela”.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Bai, lur txiki bat dauka”.

Bertaratutakoak dio:

“Orduan, jabeen interesetako litzaiekera udalari ere interesetako litzaioke”

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Terrenoak jabe bezala agian bai edo ez. Agian jabeak hor nahi dute ahalik eta etekin gehien atera terreno horiekin. Udalak berriz dauka beste proiektu batzuk. Terreno bat dauka hor baina beste ideia batzuk desberdinak ere. Adibidez, hemen azaltzen direnak, ez dakit momentua den hau diskutitzeko edo ez baina ez daukat problematik komentatzeko, azaltzen diren etxebizitzak erdiak izango dira babestuak, bai babes ofizialekoak eta bai tasatuak. Hori udalak bultzatzen du, udala jabe bezala, nahiago du denak libreak izatea etekin gehiago ateratzen delako. Hor dago diferentzi bat, gauza bat da jabea izatea eta beste bat udala bezala ze interesa dauden herrian hau bultzatzeko modu batean edo bestean.”

Bertaratutakoak dio:

“Kooperazio sisteman, urbanizazioari buruz, nola egingo litzateke?”

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Nola gauzatu gero? Bueno urruti xamar zoaz, esan nahi dut hau aurreproiektua dela, landu behar da denon artean, hau da gutxienez gure asmoa; hortarako irekitzen da bi hilabeteko epea, bai jabeekin bai konstruktorekin etortzen baldin badira bere ideak ekarriko dituzte, landuko da behin eta berriro batzordeetan, ez bakarrik batean baizik behar den guztietan. Bilduko gera eta horren arabera aterako da proiektu definitibo bat eta gero da gauzatzea proiektu hori. Bi fase desberdin dira, momentu honetan gaude proiektua aprobartzeko lehenengo pausotan eta gero izango da proiektua probatzen denean, hau edo beste bat, pentsatzen dut bi momentu oso desberdin direla”.

Bertaratutakoak dio:

“Zuek kooperazio sistema hartzen duzuen momentuan urbanizazioa aurrera ateratzea udaletxearen esku geratuko litzateke”.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Posible da. Agian aprobatzen den pleneamendua ez du ezer ikusirik honekin, teorikoki, guk hemendik joan nahi dugu gutxi gora behera.

Bertaratutakoak dio:

“Gero, jakin nahi nuke, aurrerapen hau batzordetik pasa aurretik lurjabeekin hitz egin den ala ez”.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Galdetzen baduzu lurjabeekin hitz egin ahal den aurrerapen aurrera ateratzeko esango dizut printzipioz ezetz, proiektu hau ez da inon diskutitu”.

Bertaratutakoak dio:

“Harrituta gaude nola den posible guri proiektu hau, gutxi gora behera orain dela 15 egun iritxi zitzaien eskura, aurreratu zeniguten zerbait pleno batean eta nola den posible ia hilabete batzuk aurretikan promotore batzuk honen berri izatea”.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Promotoreak daude interesatuta zer egingo den hemen gutxinez orain dela bi urte. Ni sartu nintzenean jendea atzetik zebilen. Proiektu hau inork ez duela ezagutzen nik esaten dizut”

Bertaratutakoak dio:

“Guk jabe batzuen bidez badakigu, aurrerapen honetan azaltzen diren kopuruak denak zekitela; Orduan nola ez zekitela?”.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Kopurua?, ez dakit noiz banatu zen hau, orain dela 15 bat egun, lehenago ez da ezer komentatu. Bazegoen beste proiektu bat, zuk dakizun bezala, suspendituta geratu zena, ez dakit hor kopuruak azaltzen ziren, horri buruz ari diren edo ez”

Bertaratutakoak dio:

“Ez, kopuru zehatzagoak ari dira. Gero jakin nahi genuke nola kalkulatu duzuten herri henetako etxe hutsak. Guk buelta batzuk eman dizkiogu eta “eso no cuadra”.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Bulegoan egin zuten, ez dakit nola izan zen kalkuloa. Zenbat etxebizitza daude eta uda eta argindarraren gastuen arabera... gasturik ez badago kontsideratzen da hutsa, horrelako zerbait.

Bertaratutakoak dio:

“Horri buruzko txosten bat nahi nuke. Gero, printzipioz aurretikan komentatzen da nola egiten den “reparto de cargas y beneficios”, eta formula bat eginda zegoen aurrerapen honetan ez dago ezerrez, hori zeren arabera egingo da, eginda dagoen, estudiantuta daukazu?”.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Printzipioz area bakarra izango da eta hor lortuko diren etekinak denon artean banatzen dira, zer gertatzen da? Leku batean eraikinak egongo direla, edifizio berrik eta beste batzutan ez, baina etekinak denontzat berdin izango dira, formula urbanistiko normal bat da. Area bakarra denez, etekin guztiak denon artean banatzen dira”.

Bertaratutakoak dio:

“Gero beste gauza bat, oso garbi ez duguna da, lehendik zuk eta nik askotan hitz egin dugu, hor leen “Villa adosatu” batzuk zijoazten eta hor esaten duzute diputazioak esaten duela ezin direla egin”.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Ezin da egin, bai”.

Bertaratutakoak dio:

“Gure informazioaren arabera Diputazioak dauka eskumena bai kalifikatzeko eta klasifikatzeko baina horren baitan bertan zer egiten den ez. Orduan, Diputazioak etxebizitza horiek egiteko galerazten duen txostena nahi genuke edo zuek informazio hori nondik atera duzute?”

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Diputaziotik zuzen zuzenean, orain dela bi urte joan ginenean Diputaziora hori esan ziguten teknikariak, beraiek onartu behar dute aldaketa, arauen aldaketa delako eta beraiek esanda horrelako etxebizitzak, horrelako txaleta adosatuak, ez dutela utziko sekulan ere ez eraikitzen. Gainera esplikazio oso ximplea izan zen: Gipuzkoa txikia dela, leku gutxi dagoela eta aprobetxatu behar dela”.

Bertaratutakoak dio:

“Hori nik ere ikusten dut baina beste herrietan egiten ari dira eta hori niri ez zait buruan sartzen, horren buruzko informea nahi dugu, ahozkoa den informazio hori edo nolakoa den”.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Ahozkoa izan zen, ez dakit idatzita dagoen, ez ahozkoa izan zen”.

Bertaratutakoak dio:

“Horri buruzko informea nahi genuke. Gero beste alde batetik bi liburu dauden hemen eta bigarren liburuan 4.2 puntua eta lehenengo liburuan 12. orrian D. puntuetan kontradizio batzuk daude, Orduan horien aklarazioa nahi nuke.

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Esan dizudan bezala ez da momentua, diskutituko dugu, ez dut ikusi kontradizio hori, agian hor dago, oso ondo”.

Bertaratutakoak dio:

“Beste alde batetik, aurrerapen honetan ez da ikusten ez futbot zelairik ez eta igerilekurik. Horiek egiteko asmorik?”

Alkate funtzioko jaunak erantzuten du:

“Ez dituzu ikusten, noski, proiektuan agertzen ez direlako; finantziazioa lortzen baduzu ez da ideia txarra”.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate funtzioko Jaunak amaitutzat eman du bilkura, goizeko zortzi terdiak direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.